

KANALAK

Bezeroek edo gizarteak berak gure berri izan dezaten, publizitate enpresa bat kontratatuko dugu (Gattiken). Bertan, akordioa eginiko enpresari ahalik eta xehetasun gehien emango dizkiogu gure nahietara egokitzeko. Honekin lortu nahi duguna da ahalik eta herritar gehienei guri buruzko informazioa iristea da, horrela gure proiektuarekin bat egin dezaten. Gattikenek egindako publizitate bideoa telebistan erakusteko aukera ere izango dugu; Eitb-n hain zuzen. Udaneren ama bertako langilea da, eta, beraz, ez dugu kontaktatzeko arazorik izango.

Aldiz, produktuaren zati bat guk sortuko dugu, eta beste zati bat makinek egingo dute; zehazki, hasieran, poltsak lotu behar direnean, gure lanak izango da, baina poltsa indartsu geratu dela ziurtatzeko makina erabiliko dugu. Materiala akordioa egin dugun enpresak emango digu.

Sare sozialak geroz eta erabilgarriagoak eta praktikoagoak egiten ari dira hainbat negozio eta proiektu ezagutzera eramateko. Horregatik, hainbatetan kontu bat sortuko dugu, bertatik ere bezeroak lortzeko aukera izateko. Taldeko guztiok gaude ohiturik sare sozialak erabiltzen; beraz, hau ere gure esku geratuko da.

Horrez gain, webgune bat sortuko dugu, bertatik ere bezeroei informazioa emateko. Bertan, gure filosofiari buruz hitz egingo diegu, eta gure helburuak zeintzuk diren ere bai. Gainera, gure instalazioak erakutsiko ditugu bertan, eta gurekin kontaktuan jartzeko telefono, sare sozialeko izena nahi e-maila bertan jarriko ditugu, kezkarik edo informaziorik behar badute. Bazkide izateko aukera dutela ere azalduko diegu, eta horri buruz berri emango diegu.

Bezeroarengana iristeko, batetik, kanal zuzena erabiliko dugu, lokal bat izango dugulako eta bertara erosleak gerturatuko direlako. Gainera, on-line erosteko aukera izango dutenez, kanala zuzena izanik; bestetik, kanal nahasketa bat eginez. Guk supermerkatuari salduko dizkiogu poltsak eta beraiek bezeroei saldu, irabazien zati handi bat guretzako izanik.

Gure lokala asteartetik ostiralera 10:00-13:00 eta 17:00-19:00 egongo da irekita, astelehenetan itxita egongo da eta larunbatetan 9:00-14:00; igandean itxita egongo da, jai eguna izanik. Supermerkatuak irekita dagoen ordu guztietan salduko ditu poltsak, eta gehiago behar izanez gero, gehiago erosiko dizkigute behar dutenean.